Horrelaxe sinatu dute Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteak lehendakariak, Arantxa Eguzkitza Euskadiko Sagardogileen Federazioko eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak lehendakariak, Jose Antonio Zamalloa Euskadiko Sagardogileen Federazioko lehendakariorde eta Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak lehendakariak eta Benito Peciña Arabako Sagarzale eta Sagardogileen Elkarteak lehendakariak. Hitzarmen honek Eusko Jauriaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzaren eta HAZI fundazioaren babesa izan du. Sinadura ekitaldia Orioko ikastolan bertan izan zen. Iaz Gipuzkoako herri honetan egin zen Kilometroak Festa "Herria Txikota" lemapean.

Eusko Label sagardoa %100 bertako sagarrarekin egindako kalitatezko produktua da, eta bai sagarraren bertakotasuna bai kalitatezko parametroak HAZI fundazioak ziurtatzen ditu, hasi sa-

gastietatik eta botilaraino. Gaur egun 200 sagastietatik gora dira Eusko Label sagardorako sagarra ematen dutenak Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban eta 27 sagardotegi dira 2013ko uztan Eusko Label sagardoa egin dutenak: Hogei Gipuzkoan, sei Bizkaian eta bat Araban. Aburuza (Aduna), Aginaga (Usurbil), Añota (Azpeitia), Astarbe (Astigarraga), Axpe (Markina-Xemein), Baleio (Oiartzun), Bereziartua (Astigarraga), Calonge (Igeldo-Donostia), Etxebarria (Gatika), Eula (Urnieta), Iparragirre (Hernani), Irure-Txiki (Zestoa), Iturrieta (Aramaio), Itxasburu (Hernani), Izeta (Aia), Kandi (Muxika), Laneko (Gizaburua), Larrarte (Astigarraga), Lizeaga (Astigarraga), Malgarrazaga (Gatika), Ola (Irun), Petritegi (Astigarraga), Saisar, (Usurbil), Satxota (Aia), Txindurri-Iturri (Deba-Itziar), Urbitarte (Ataun) eta Uxarte (Zornotza).

Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako 28 sagardotegiek egin dute Eusko Label sagardoa 2014ko uztan %100 Euskal Herriko sagarrarekin. Aurreko urteetan baino sagardo gehiago egin dute orokorrean. Eusko Label zigilupean saltzeko helburuarekin, 900.000 litro. "Eusko Label Euskal Sagardoa" etiketa lortu ahal izateko, ordea, botilaratu baino lehen, analitikak eta adituen kata bat pasa behar dituzte sagardo hauek eta, beraz, Eusko Label sagardoa izateko bidean dauden upelak direla esan behar da.

ALBERRO
SAGARDOTEGIA

Sagardo naturala

Santa Barbara Auzoa 61, Hernani • Tf. 943 55 00 19

ZINTZARRI
Taberna

Erkiaga pasealekua
20120 HERNANI
Tel. 943 55 20 32

aker

TABERNA

ZAPA kalea 7 HERNANI

107 sagar mota daude onartuta

HAZI fundazioak egiten ditu sagarra eta sagardoaren egiaztapen lanak, bi oinarri nagusi betetzen direla ziurtatzeko: %100 bertako sagarrez egindako sagardoa dela, batetik, eta Eusko Label sagardoaren araudi teknikoan zehazten diren kalitate oinarriak betetzen direla, bestetik.

Gaur egun, bertako 107 sagar mota daude onartuak Eusko Label sagardoa egiteko, eta sagardotegi bakoitzak aukeratzeko du gustuko nahasketa; izan ere, ez da sagardo homogeneo edo berdina lortu nahi Eusko Labelen. Sagardotegi bakoitzak bere ukitua emateko aukera izatea nahi da, analitikoki nahiz organoleptikoki kalitatezko sagardoa dela ziurtatuta.

AZKEN SAGAR UZTA ONA BAINA USTE BAINO TXIKIAGOA IZAN DA

2014ko sagardo uzta prest dago sagardotegietan, txotx garai berrian nahiz botilaratuta dastatu ahal izateko. Euskal Herri mailan oso uzta desberdina izan da, zona batzuetan sagar kopuru handiak eta beste batzuetan txikiagoak izan baitira, udaberri eta udan izandako eguraldiak eragina.

Sagar mota desberdinekin ere gauza bertsua gertatu da, sagar mota batzuek asko eman dute eta beste batzuek gutxiago, loraldi garaian eguraldia eta baldintzak desberdinak izan baitira. Bertako sagarrari dagokionez, orokorrean oso sanao izan da sagarra, uste zena baino %20 bat gutxiago lortu bada efe.

Gipuzkoa, Bizkai, Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko sagardotegiak eta eragileak biltzen dituen Bizi Sagardoa Elkarteak jakitera eman duenez, guztira 12,5 bat milioi litro sagardo egin dira Euskal Herrian 2014ko uzتان eta horretarako %50 inguru erabili da bertako sagarra eta gainerako %50 kanpotik ekarri behar izan da.

Gipuzkoan 12 bat milioi litro sagardo egin dira 2014ko uzتان, aurreko urteetako kopuru bertsua. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak sagardotegiek 8 milioi litro egin dituzte eta, horren esanetan (www.sagardotegiak.com), espero zena baino %20 sagar gutxiago sortu da Gipuzkoan orokorrean, baita Euskal Herriko beste zenbait lekutan ere. Badira sagar asko izan diren zonak, kostaldea adibidez, edo Goierriko zenbait leku, baina baita gutxiago izan den lekuak ere, Oiartzun ingurua edo Tolosaldea, Goierri eta Beterriko zenbait sagasti, adibidez.

SAGAR BILA

Baina sagastitik sagastira eta sagar mota batetik bestera asko aldatu da egoera Gipuzkoan. Horrek eragin du sagardotegi askok %100 bertako sagarrarekin egin dutela sagardo guztia baina beste batzuek kanpora joan behar izan dutela sagar bila. Gipuzkoako Elkarteak esandakoaren arabera, %45 izan da bertako sagarra 2014ko uzتان, orokorrean oso sagar sanao.

Aurreko urteko uztaekin alderatuta, askoz sagar gehiago izan da Gipuzkoan eta sagarraren ezaugarriak begiratu, tanino aldetik suabeagoa eta gradu alkoholikoan bajuxeago etorri da aurtan sagarra.

Bizkaian 150.000 litro egin dira 2014 uzتان, %100 Bizkaiko sagarrarekin, Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak (www.bizkaiko-sagardoa.com) jakitera eman duenez. Durangaldea, Busturialdea, Uribe Kosta, Txorierri eta Leartibai dira sagarra jasotzen duten eskualdeak eta ho-



Nahiz eta lazko uzta oso ona ez izan, ia 13 milioi litro sagardo egin dira Euskal Herri osoan.

304 URRE / ARGAZKI PRESS

Bizkaiko sagardogileek apustu garbia egiten dute beren sagardoa %100 bertako sagarrarekin egitearen alde. Eta bide horretan, 2014an hektarea eta erdiko sagasti berri bat jarri dute Muskizko inguruan.

Arabako sagardozaletik 120.000 litro sagardo egin dituzte 2014ko uzتان eta horretarako %100 Euskal Herriko sagarra erabili dute. Arabako Sagartzale eta Sagardozaletik jakitera eman duenez, Araban lan handia egiten ari dira, bertako sagar motak berreskuratzen eta aztertzen. Sagarrondo bakan hauek lokalizatu, sagarrak aztertu eta etorkizunerako mantentzeko lan handia egiten ari da Arabako Sagartzale eta Sagardozaletik jakitera eman duenez. Arabako Sagartzale eta Sagardozaletik jakitera eman duenez, Araban lan handia egiten ari dira, bertako sagar motak berreskuratzen eta aztertzen. Sagarrondo bakan hauek lokalizatu, sagarrak aztertu eta etorkizunerako mantentzeko lan handia egiten ari da Arabako Sagartzale eta Sagardozaletik jakitera eman duenez.

Nafarroan 300.000 litro egin dituzte 2014ko uzتان, Nafarroako Sagardogileen Elkarteak jakitera eman duenez. Beren sagastietatik lortu dute sagarraren %50 eta gainerako sagarra ekarri egin behar izan dute. Gainera, uste zena baino sagar uzta txikiagoa izan da eta, horren eraginez, azken urteetan baino sagardo gutxiago egin dute 2014ko uzتان.

Iparraldean 250.000 litro sagardo egin dira 2014ko uzتان. Guztira, 400.000 sagardotarako sagar izan ditu Sagartzea Elkarteak jakitera eman duenez. Hauetatik erdia erabili dute Elkartearen bertan (www.cidre-etzigar.com/etzigar).



Sagardo botila urte osoan salgai



LARRE-GAIN

Tolare - Sagardotegia

© 943 55 58 46 - 616287867

Larre-Gain Baserria ERENOTZU - HERNANI



«Duguna erakusten ez badugu, jai dugu»

JOSE ANTONIO ZAMALLOA

■ Bizkaiko Sagardoa elkarteko presidentea

IA BI HAMARKADA DARAMATZA ZABALIK ZORNOTZAKO UXARTE SAGARDOTEGIAK. BASERRIAK, BERRIZ, BI MENDE BAINO GEHIAGO DARAMATZA ZUTIK. EGUN, SAGARDOGINTZA ETA TURISMOA UZTARTZEKO EGINIKO APUSTUARI BURUZ ARITU DA UXARTEKO ARDURADUN ETA BIZKAIKO SAGARDOA ELKARTEKO LEHENDAKARI JOSE ANTONIO ZAMALLOA.

Asko aldatu da sagardogintza urteotan?

Bai, ni neu ekoizpena lantzen saiatu naiz, bai sagarrean, baita plantazioetan ere; arlo guztietan hobetzen saiatu naiz. Guztia da bat, eta aspaldian, sagardotegiaren arlo turistiko-pedagogikoa ere jorratu dugu. Kontsumitzailerari zer egiten dugun erakustea da gure helburua, buru-belarri gabilta horretan. Alde batetik, bezeroak zer egiten dugun ikusten du horrela. Bestetik, hori erakutsita, salmentak igo egin daitezke. Biak ala biak Uxarten bertan egiten ditugu, eta aprobetxatu egiten dugu zeregina horrela. Gure bezero potentzialak

nahiko hurbil daude, eta horrek erraztu egiten du. Bizkaia, eta Euskal Herria bera, herri handi bat dira, azken finean.

Bizi Sagardoa eratu zenuten 2013an. Ze balantze egiten duzue?

Baserrira bere osotasunean hartzea komeni da, ez sagardoa edo sagardogintza beren horretan bakarrik; erakutsi egin behar da, jendeari azaldu egin behar zaio zein den gure lana, nola egiten dugun guztia, bestela ez dago etorkizunik. Uztartu egin behar dira turismoa eta lana; eta turismoa diogunean, ez gabilta kanpotarrei buruz bakarrik, bertako-



LAGUN (SAGARDOTEGI) / ARGAZKI PRESS

Montorra, 6. 48340 ZORNOTZA - ☎ 94 630 88 15 - www.uxarte.com

UXARTE SAGARDOTEGIA
BASERRIKO OKELA ETA OILASKOA - SAGARDOA URTE OSOAN TXOTX-etik BENETAKO SAGARDOTEGIA Deitu, etorri eta egiaztatu.

Sagardotegi mugikorrak

TRIKI KUPELA
ELKARTEA

Egin Txotx zure herriari

facebook

twitter

www.trikikupela.es
info@trikikupela.es
628 52 80 97

entzat ere sustatu behar da. Merezki duten jarduerak erakutsi egin behar dira; hemengo produktua ongi ikusia dago, eta saldu egin behar da. Bizi Sagardoan filosofia horrekin egiten dugu lan. Koordinazioa izaneko gero, askoz emaitza hobek lortzen dira. Guztiok egin beharko genukeen zerbait da, eta ez ezkutatu eta bakoitzak bere esklusibotasunarekin saldu. Duguna erakusten ez badugu, jai dugu.

Tokiko produktuak kontsumitzeko ohitura hazi egin da aspaldian. Ados?

Hori da bide bakarra, osterantzean, gaineratik pasatzen zaizkigu. Neurri batean, jada gertatu zaigu, enpresa edo salgune handiekin. Betiere, oinarrian ziur bagaude gure produktuak merezi duela. Kasu honetan, nik uste, sagarrak eta sagardoak merezi dutela, hala nola, baserrietako ortuariak. Zergatik ez diegu erakutsiko? Bezeroek eskertzen dute gainera, tranparik ez dagoela erakusten zaie eta. Beharbada, ez dugu kopuru handietan erakutsiko, baina etorkizunean izan daiteke. Merezki duen produktua da arlo guztietan, kalitate zein zapora aldetik, beraz, erakutsi beharreko produktua da. Eta kanpaina orokorek balio dute erakusteko, bai-

TURISMOA

«Uztartu egin behar dira turismoa eta lana; eta turismoa diogunean, ez gabilta kanpotarrei buruz bakarrik, bertakoentzat ere sustatu behar da».

na norberarena den lan hori ere egin beharra dago.

Itxaropentsu, beraz?

Denborak erakutsiko du. Azken batean, apustuak beti ez dira ongi iritertzen, lana ondo egin arren, baina badakigu zein den bidea.

Erakundeen babesik jasotzen duzue?

Bai, neurri batean badago. Baina ez argi eta garbi; esan behar da diru laguntzaren esperoan edo horren araberako lana soilik egiten badugu jai daukagula. Norbere produktuak egin behar du etorkizuneko bidea. Erakundeek lagundu bai, baina neurri mugatua; laguntzak egon behar dira eta aprobetxatu behar dira, baina ekoizpen planteamenduetan ez ditu horrek baldintzatu behar.

Nola animatu herritarrek Bizkaiko Sagardoa probatzera?

Proba dezatela beren kabuz, sagardoa merezi duen produktu bat dela eta sagardotegian ondo jan eta edaten dela. Ohitura aldetik ere ona da sagardoa egunerokorako. Onena, hurbildu eta probatzea. Errepikakorra izan daiteke, baina sagardoa merezi duen produktua da eta aukera bat eman behar zaio.

BIZKAIAN, SAGARDO BIZKAITARRA

Aurtengo sagardoa arina izango da Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko Sagardoa elkarteak lehendakariaren esanetan. «Oraindik gutzit zehaztu gabe dagoen arren». Halere, usaina «ederra» du zukuak, eta kalitate onekoa izango da aurtengo sagardo bizkaitarra.

Bestalde, barietatean ere eragina izango du. «Hemengo klima aldakorrek eragina du loral-dian, eta puntua hartzen du batzuetan eta beste batzuetan ez». Joan den urteko udazken epelaren ondorioz, fermentazioa aurreratu egin zen, eta horrek ere eragina izan du.

Uzta aldetik, iazko sagar kopuru antzekoa batu da, 200 tona inguru, eta ahal bezainbat sagardo gehiena ekoizti dute. «Amaiera aldera, bat baino gehiago motz geratuko zen, beharbada; gehiago egongo balitz, gehiago egingo genuke». Izan ere, hasieran uste zena baino sagar gutxiago bildu da. Halere, eskualdearen arabera ulertu behar da hori. «Toki batzuetan besteetan baino gehiago egon da, nahiko irregularra izan ohi da hori».

Bizkaiko sagardoa egiterokan, bertako uztaren menpe daude ekoizleak; izan ere, herrialdeko sagarrak baino ez dituzte erabiltzen. «Beti funtzionatu dugu horrela: bertako sagarrarekin eginiko sagardo natural eta ekologikoa egiten dugu». Bizkaian, produktu bizkaitarraren alde egin duten apustua uzten du agerian datu honek.

HERRIALDEAN BARRENA

Urtez urte eginiko lanaren ostean, gero eta babes handiagoa du sagardoaren kulturak herrialdean. Egun, hamar ekoizle daude Bizkaian: Etxebarria (Gatikako Txone-Barri baserrian), Leartibai kooperatiba (Gizaburuagan),



Bizkaiko sagardogileek bertako sagarrak erabiltzen dituzte. Aurtengo sagardoa arina eta kalitate onekoa izango da.

LARA SALINCEGALDO / ARGAZKI PRESS

Malgarrazaga (Gatikan), Axpe (Markina-Xemeinen), Kandi (Muxikako Ametsebarri auzoan), Laka-Erdi (Berriatuko Mereludi auzoan), Erdikoetxe (Lezamako, Goitioltzan), Isasi

(Iurretan), Sebastianeko (Mendexan) eta Uxarte (Zornotzan). Hain zuzen ere, azkeneko honetan egingo da denboraldi hasierako txotx ekitaldia, iaz egin zen bezala. «Uxarten egingo da,

eta iazkoaren antzeko eskema erabiliko dugu ekitaldirako». Aurtengoa ekitaldi hau egingo den hemeretzigarren aldia izango da. Esan daiteke, beraz, festa hau klasiko bilakatzen ari dela.

Horrez gain, erreferentia ere bada, urteko sagardoa nolakoa izango den jakin daiteke eta. Oraindik ez da erabaki aurten nork izango duen urteko lehen-biziko sagardoa edateko ohorea.

Sagardo ezberdinak lortzeko bideak ireki dituzte

Bizkaiko sagardogintzan, gainerakoetan bezala, sustraiak errespetatu dira; funtsa eta oinarria betikoak dira, baina azken urteetan bestelako joerak ere nabarmendu dira. Bizi Sagardoa ekimenaren sorrera ere apustu berrizale horrekin lotzen da, azken finean. Horietako beste bi, teknologiaren eta metodologiaren sarrera. Izan ere, sagardoa egiteko erak bilakaera izan du. Kalitate maila

handiagoa lortzeko, kontrol mekanismoak eta kalitate bermeak ezarri dira, eta horiek izan dira gehienbat aldatu direnak. Duela urte batzuetara arte upeltegi teknikak oso landuak ez zeuden arren, egun ohikoa bilakatu da zukuak osasun baldintzak betetzen dituzten edota nahasketak ondo egiten diren egiaztatzeko probak laborategietan egitea.

Bestalde, sagardo ezberdinak sortzerokan tekniken garapenak garrantzi handia izan du. Sagar mota eta osagarrien nahasketarekin ez ezik, esperientzia eta teknika horiek sagardo ezberdinak lortzeko bideak ireki dituzte. Sagardogile bakoitzak erabakitzen du zer eta nola erabiltzen duen sagardoa egiteko, eta ondorioz zukuak ezaugarri batzuk edo beste batzuk izango ditu.

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Berriatxo
Laka-Erdi Sagardoa
Juan Amallobieta Arriola
Tel.: 94 613 91 78

Gatika
Etxebarria Sagardoa
Itxar Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Gatika
Eguskizo Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

Gizaburuaga
Laneko Koop
Leartibai Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Iurretan
Trazola Sagardoa
Sonia Isasi
Tel.: 94 681 60 44

Lezama
Erdikoetxe Sagardoa
Andoni Ojanguen Zorroza
Tel.: 94 457 32 85

Markina-Xemein
Axpe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Mendexa
Sebastianeko
Sagardoa
Anton Aresti Figueren
Tel.: 94 684 26 42

Muxika
Kandi Sagardoa
Sat Kandi
Tel.: 94 625 33 82

Zornotza
Uxarte Sagardoa
José Antonio Zamalloa
Tel.: 94 630 88 15

Bizkaiko
sagardoaren
alde egin,
ánima zaitzez



**bizkaiko
sagardogileak**

Año a año está creciendo la afición por la sidra en tierras alavesas, se está expandiendo por un territorio donde el vino ha sido la tradición. Aunque todavía esté lejos del nivel de Bizkaia, o sobre todo de Gipuzkoa, la gente muestra una afición creciente por las sidrerías.

Es innegable que Araba es tierra de vinos, y además excelentes. Sin embargo, hace más de cien años en Araba se bebía sidra; en muchos caseríos se producía allí mismo, para autoconsumo. Después, el vino se hizo rey indiscutible, y a partir de ahí sólo han existido contadas experiencias de producción de sidra.

Esta temporada de recogida de manzana ha sido bastante escasa en lo que a cantidad se refiere. Aun y todo, será «una buena sidra», en palabras de Juanjo Peciña, responsable de la sidrería Iturrieta, de Aramaio. «Hemos producido un poco menos de lo que creíamos, pero la sidra de este año es de muy buena calidad». En cuanto a sabor, señala que será igual de sabrosa que siempre.

SIDRA ECOLÓGICA

Hoy en día, dos sidrerías forman Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkarte: Trebiñu, en Askar-tza, e Iturrieta, en Aramaio. Tras muchos años de lucha, estas sidrerías se han querido desmarcar de otros locales con denominación de «sagardotegi». «En realidad, son simples restaurantes. Nosotros fomentamos la cultura de la sidra, la damos a conocer», explica Peciña.

A lo largo de estos años, los productores alaveses han hecho una apuesta por producir sidra con manzanas alavesas; esto ayuda, además, a desarrollar una cultura sidrera propia. Solo en caso de no haber suficiente cosecha se ha recurrido a manzanas de fuera de territorio alavés. «En el caso de Iturrieta, el 10% es manzana traída de Bizkaia y Gipuzkoa», informa. En el caso de Trebiñu, intentan hacer la sidra con manzanas propias.

El objetivo de la asociación Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkarte ha sido desde el principio producir una sidra propia. Para ello, tienen que superar algunos obstáculos y dificultades. La sidra de Araba es ecológica, y por lo tanto, la ma-



Txotx inaugural del pasado año en la sidrería Iturrieta, de Aramaio.

Foto: RUIZ / ARCAZKI PRESS

TRABAJANDO POR UNA CULTURA SIDRERA PROPIA Y ALAVESA

nera de producir es diferente. «Otros productores superan las dificultades con diferentes productos químicos, pero en nuestro caso no lo hacemos así». Además del sobreesfuerzo que esto supone, hay que añadir el coste económico adicional. «El proceso es más caro, al tener que recurrir a gente que también trabaja

en ecológico». En el lado positivo, se están tejiendo y fortaleciendo las relaciones entre diferentes productores ecológicos.

TEMPORADA EXITOSA

La temporada sidrera de Araba dará comienzo un día más tarde que en Gipuzkoa, en la sidrería Iturrieta. En concreto, el

primer txotx alavés se realizó ayer, siguiendo un esquema parecido al de años anteriores y con acompañamiento de trikitixa y txalaparta. Este año ha repetido Iturrieta como anfitriona para el inicio de temporada sidrera. La temporada del pasado año fue una de las más exitosas, si no la que más,

para la sidrería ubicada en Aramaio. «Desde que la sidrería abrió sus puertas, la pasada ha sido la mejor campaña; por ello, nos gustaría dar las gracias e invitar a la gente a que repita».

Abierta desde 1998, la sidrería Iturrieta es un proyecto para recuperar la manzana alavesa. En territorio alavés hay en marcha un proyecto para conocer cuáles han sido las manzanas que tradicionalmente se han usado para la elaboración de la sidra; una vez conocidas las mejores, o más apropiadas, se procederá a usarlas.

Con la bandera de la elaboración de sidra ecológica y alavesa, también se critica el hecho de que establecimientos donde no se elabore sidra realicen este tipo de eventos, por entender que desvirtúan el sentido y la cultura tradicional de la sidra. «Para desarrollar una cultura hace falta dar a conocer los procesos, usar elementos cercanos... y explicarlos, claro».

LAS MEJORES MANZANAS. Está en marcha un proyecto para conocer las manzanas que tradicionalmente se han usado para la elaboración de la sidra. Una vez conocidas, se usarán las mejores.

 **Unzueta sagardotegia**

«Denboraldian zehar denok joan behar dugu txotx egitera; ohitura polita da»

JUANJO PECIÑA ■ Arabako Sagardogileen Elkarteak presidentea

ARAMAIOKO ITURRIETA SAGARDOTEGIKO ARDURADUNA DA JUANJO PECIÑA, ARABAKO SAGAR ETA SAGARDOGILEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA IZATEAZ GAIN. 1998. URTETIK DAGO ZABALIK ITURRIETA SAGARDOTEGIA, ARABAKO SAGARDOZALEEN TOPAGUNE HISTORIKOEA ERE BADA, BERAZ HAN BERTAN EMAN ZIOTEN ATZO HASIERA TXOTX DENBORALDI BERRIARI.

Zenbat sagar kilo bildu dira eta zer moduko uzta izan da?
Guztira, 145.000 kilo sagar bildu ditugu gure landetan. Guztira, 60.000 litro sagardo ekoiztu ditugu. Aurtengoa kalitate oneko sagardoa izan da; halere, egia esan, kopuru händiagoko bat jasotzea espero genuen hasiera batean.

Nolako sagardoa izango da kalitate aldetik?
Oraindik goiz da ziur esateko, baina sagardo ona datorrela dirudi, oraingoz behintzat. Gorputza dauka, eta zapoz ere ona dator.

Guztia Arabako sagarrekin egin izango da?
Araba mailan, ia %100 egiten da bertako sagarrekin. Trebiñu sagardotegian, adibidez, etxeko sagarrekin egiten da sagardoa.

Herrialdeko sagarra erabiltzen ez duzuenen nondik hartzen duzue?
Esan bezala, ia guztia Arabako sagarrekin egiten da. Iturrieta sagardotegiaren kasuan, baina, erabiltzen dugun sagarren %10 Bizkaitik eta Gipuzkoatik ekarzen dugu.

Azkeneko urteetako uztarekin alderatuz gero, alde handia?
Sagar hobekak izan ditugu, eta, ondorioz, sagardoa ere ona izango da. Horren arabera denez, sagardoa ere hobea izango dela suposatzen da.

Fracking Ez! plataformako ki-deek emango diote hasiera denboraldiari txotx ekitaldian. Zergatik bereak?
Arabako sagardogileok produktore eta ekoizleak gara eta, beraz, ama lurraekin harreman estua dugu, beraz uztazetik bi-



JUANJO PECIÑA / ARGAZKI PRESS

zi gara eta. Fracking Ez! plataformak lurra defentsan egiten du lan bereziki; hortaz, erraza da gure arteko lotura egitea.

Zer prestatu duzue denboraldi berriari hasiera emateko?
Betikoa, Arabako lehenengo sagardoa dastatzeko ekitaldia. Txalaparta kolpeekin hasi, eta sagardotegi garaian ohikoa den bezala, trikitixa eta abesti eta dantza musikatuak ere izango dira.

Sagardo Eguna ospatzen jarraitzen duzue?

Oraindik ez dago egun ofizialik Araba mailan, baina toki eta momentu ezberdinetan egiten da. Gasteizko alde zaharrean, adibidez, hainbat urtean egin da, eta Aramaion ere egiten da.

Araba beti lotu izan da ardoarekin. Badago sagardorako zaltetan?

Gero eta gehiago. Batez ere txotx garaian nabaritzen da hori. Uda aldera, gazteek edari aproposa aurkitzen dute sagardoa. Argi utzi nahi dugu, ez dugula nahi kompetentziarik ardoarekin; edari ezberdinak dira.

Etixerako sagardoa, aldiz, ohitura errotua da. Zergatik?
Ardo sartu baino lehen, sagarrondoak zeuden lekuetan sagardoa edaten zuten. Arabako

iparraldean sustraitua zegoen ohitura hori, batez ere Aramaio eta Aiala aldean. Lautadan ere errotua zegoen hori.

Krisi ekonomikoa eraginik nabaritzen al da?

Guk txotx garaian ez dugu gehiegi igarri; izan ere, jendeak guregana etortzen jarraitu du. Denboraldian zehar, denok joan behar dugu txotx egitera, bai ala bai. Ohitura polita da hori.

Txotx egin!!

Cenas con servicio de autobús




Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
 ☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
 iturriasagardotegia.blogspot.com



Arabak, arabako sagardoa!



Egin txotx!!
Cenas con servicio de autobús

TREBIÑU Sagardotegia

☎ 945 244 352 / 657 736 599 - ASKARTZA TREBIÑU



IMANOL JAKA ■ Propietario de la empresa Txogitxu



«Las mejores chuletas del mundo son vascas»

Imanol Jaka con una de las chuletas de Txogitxu. TXOGITXU

Tras abrir apetito con la tortilla de bacalao y con el bacalao con pimientos, suele ser el turno del plato estrella del menú de la sidrería: la chuleta. Txogitxu es una empresa de Astigarraga con gran volumen de producción de carne de vaca, y también es pionera en apostar por la carne roja de calidad.

Desde que en 1987 Imanol Jaka, junto con José Vidal, pusieron en marcha Txogitxu, se ha convertido en una de las empresas con más experiencia del sector. A su vez, también es una referencia a la hora de crear opinión acerca de la carne vacuna.

Con la temporada sidrera igualan una actividad que es desenfrenada el resto del año. «Hacia marzo, en el resto de sitios suele bajar un poco el consumo, por lo que se compensa con la demanda de las sidrerías», explica Jaka. En total, abastecen de carne a más de quince sidrerías.

Las sidrerías Gipuzkoa no son las únicas en ofrecer este manjar al comensal, ya que también trabajan en Nafarroa.

Siendo la gastronomía parte indispensable de la cultura vasca, Imanol Jaka ha dedicado los últimos tres años a expandir la cultura de la chuleta. «Aquí es normal, pero cuando te vas fuera, te das cuenta de que los vascos tenemos un patrimonio gastronómico importante, y eso no es casualidad».

El salir fuera de nuestras fronteras le ha enseñado a dar valor a nuestra cocina. «La gastronomía es uno de los pilares de la cultura de cualquier pueblo; en los últimos 80 años se ha desarrollado una cultura con la vaca que no existe en otra parte del mundo», asegura.

En los últimos tres años Jaka ha estado en diversos restaurantes de ciudades como Berlín, París, Londres o Milán, y el trabajo realizado por Txogitxu en todo este tiempo ha quedado reflejado en importantes revistas gastronómicas y en televisiones de Alemania, Inglaterra o Estado francés. «Fundamentalmente -resume-, salgo a enseñar a las mejores cocinas de Europa lo que hacemos los vascos con la carne».

A la hora de seleccionar el producto, en Txogitxu tienden a elegir las vacas más viejas. «Cuando les explico cómo elegimos la carne, me suelen decir: 'Vosotros estais locos'. Tienen la carne más roja, y por lo tanto, más sabor. Les enseño cómo y por qué elegimos las vacas, y también la técnica de asado y el

tratamiento de las carnes en las sidrerías».

Lo mismo hace cuando recibe visitantes. Les lleva a una sociedad gastronómica para conocer la carne, «la identidad de este pueblo», y al recibirlos les explica qué es Euskal Herria: «Les digo que somos un pueblo que ha defendido su cultura, y que por eso nos gusta comer. No es casualidad».

«LA SIDRA HA MEJORADO»

Imanol Jaka se muestra optimista con el cambio de generación que se ha dado en diferentes sidrerías, y cree que el sector está en auge. «Los nuevos sidreros le han añadido un valor en cuanto a concepto a la sidra y a la calidad del producto; ha llegado gente nueva, y veo que ha mejorado la sidra, porque tienen más

conocimientos, estudios, e igual hasta más ilusión».

A diferencia de otros países, Jaka subraya la importancia de la honestidad, dejando el marketing de lado. «Nosotros no nos fijamos ni en tazas ni en orígenes. Tenemos un consumo brutal de carne de vaca en Euskal Herria; es un producto de dos o tres generaciones, y es otro producto más del que hay que estar orgullosos». En Japón, por ejemplo, destaca la Kobe, y en Estados Unidos, la carne llamada Angus. Jaka afirma, con orgullo, que la de aquí es la mejor carne del mundo.

Ese concepto también lo aplica Jaka en Don Serapio, su tienda de ultramarinos. «Cuando promueves productos gastronómicos no prostituidos, promueves la salud y fomentas la producción de productos honestos, y a su vez, la cultura de aquí». Junto a ello, proclama el derecho a comer bien y de forma saludable: «El comer bien no es un lujo. Lo que es un lujo es comer mal y además tener que pagar por ello».

ENSEÑANDO EN LAS COCINAS DE EUROPA. «Les enseño cómo y por qué elegimos nosotros las vacas, y también la técnica de asado y el tratamiento de las carnes en las sidrerías».

Nafarroako sagardo ekologikoaren aldeko apustua finkatu eta sustatzeko jaio zen Tolare elkarteak bertan, herrialdeko sagardo ekizleak elkartu ziren. Hain zuzen ere, Tolare elkarteak Toki Alai (Lekunberri), Linddurrenborda (Lesaka), Martixonea (Aldatz), Behetxoenea (Beruete) eta Larralde (Lekarotz) sagardotegiak osatzen dute. Lekarotzko Larralde sagardotegiko Jesus Angel Garcia da Nafarroako Sagardogileen Elkartearen lehendakaria. Hain justu, bere sagardotegian egingo da txotx denboraldi hasierako ekitaldia, urtarrilaren 16an. Egun bat beranduago, publiko guztiarentzat irekiko ditu atek sagardotegiak.

Bost sagardotegi hauetara sartzea denboran atzera egitea bezalako da, zentzurik onenean, betiere; horien eskutik posible da antzinako prozesuak lehen eskutik ezagutzea, sagardoa egiteko modu tradizionala ezagutzea. Jatetxea izaiteaz gain, bakoitzak bere sagardoa botilaratzen du, bere etiketa propioarekin.

Aurtengo honetan txotx ekitaldia Lekarotzko Larralde sagardotegian egingo da gaur, aurretik esan bezala. Bertara gainerako sagardotegietako ordezkariak eta bestelako jendea ere hurbilduko da, tartean eta jada ohikoa den bezala, kirol munduko zein kultur arloko pertsonaia ezagunak.

TOLARE, BOSTEKOA

Lekarotzen (Baztan), Nafarroako Pirinioetako iparraldeko isurialdean, Larralde sagardotegia dago, sagarrondo beteriko lursail batean. Bertako sagarra ekologikoa da, eta Nafarroako Nekazaritza Produktzio Ekologikoaren Kontseiluaren zigitupean murturatzen da. Hori egiteko mota ezberdineko sagarrak erabiltzen dira, guztiak ere bertako sagarrondoetakoak, eta horri esker, zapore berezia du zukuak; ukitu azidoa izan ohi du bertako sagardoak, edateko oso atsegina den arren.

Lesakan, berriz, Linddurrenborda sagardotegia dago, herrigunetik 300 metro eskasera. Hemen ere sagarrondo propioak dituzte, eta normalean bertakoarekin egiten dute. Uzta eskasa eduki eta beraienarekin

SAGARDO NAFARRA, IZAERA PROPIOAREN BILA



Iaz Linddurrenborda sagardotegian egin zuten txotx denboraldiaren irakiera.

Juan Carlos MUJIZ | ANGADZI PRESS

nahikoa ez dutenean, oster, inguruko ekizleengana jotzen dute, hala nola, Bera, Igantzi edo Arantzara.

Basaburuko bailara ederrean, dolare gisako sagardotegi berrienetako bat bisita daiteke: Behetxoenea. Ignazio Soralezek hamarkadatik gora darama sagardo ekologikoa egiten, eta menua ia bere osotasunean, Behetxoena baratzeko lehenegatik osatua dago. Hainbat hektareako sagarrondoak edukitzeaz gain, ganadu ustiateta ere badu.

BETERANOTASUNA, IZAERAN

Aldatzeko sagardotegia, tradizio handikoa da, halaber, historikoa dela ere esan daiteke. Izan ere, 1650. urtean erakiki zen baserri handi batean dago; harrizko eraikina da. Kasu honetan ere, bertako sagarrondoetan hazitako sagarrek egiten da sagardoa, gehienbat. Bertako uztan bildutakoarekin nahikoa ez denean, berriz, Etxarri Arantzera edota Alegiara jotzen dute fruta bila.

Azkenik, Lekunberriko Toki Alairekin osatzen da bostekoa. Gainerakoetan bezala, sagardotegietako menu tipikoaz goza daiteke bertan. Alde azpimarragarriena, bertan kabitzen den jende kopurua da. Hain zuzen ere, 110 lagunetik gora bil daitezke bertan. Sagardotegi hau berrienetako da; hala ere, beste kasuetan bezala, etxean modu tradizionalan eginiko sagardoa aurki daiteke bertan. Urtarril eta maiatza artean egon ohi da zabalik, asteburuetan. Hamarkada bat baino gehiago darama lanean.

Nafarroan edari nagusia ardoa da; hortaz, administrazioek laguntzarik ez ematea da elkarrearen kezka nagusia. Halere, hori ez da oztopoa ahalik eta sagardo onena egiteko. Horrez gain, bestelako mehatxu bat ikusten dute sagardogileek herrialde honetan. Nafarroan, gairontzeko tokietan bezala, sagardo propioa ekoizten ez duten jantzetan hazkunde hori kaltegarritzat dute, konpetentzia ez leiala egiten diete, beren iritziz.

Halere, joera horren aurrean, Nafarroako sagardoaren izaera propioa aldarrikatzen dute bertako ekizleak. Hori dela eta, beraien sagarrondoak fruituekin egiten dute sagardoa, ahal duten heinean behintzat.



SAGARDOTEGIKO MENUA EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Estudio de Gramática, 1 - Tel.: 948 55 00 10
LIZARRA

Sagardo denboraldian milaka dira sagardotegietara hurbiltzen diren herritarrek. Gipuzkoara batez ere; garaiko produktuak dastatzeaz gain, horrelakoetan bizi ohi den giroaz gozatea izaten da helburua. Gainerako herrialdeetan ere badira sagardotegiak. Alta, Trikikupelaren eskaintza beste-lakoa da: sagardotegia nahi den lekura eramaten dute bizkaitarrek. Horretarako beharrezkoa den azpiegitura dute, gainera.

Hiru zutabe nagusik eusten diote Trikikupelari: mugikortasunak, txingarrak eta profesionaltasunak. Bezeroak nahi duen lekura iristeko gai dira, eta ostalaritzan urteetan irabazitako eskarmentua dute. Horrez gain, txingarretan erreta bertako produktuak eskaintzen dituzte. Bizkaiko sagardoarekin lagunduta.

Izan ere, bizkaitarrak dira Trikikupelako lagunak. Sei urte igaro dira Bilboko Irala auzoan hazitako lau lagunek enpresa sortu eta herriz herri dabilzatenetik. «Auzoko jai batzordean ibiltzen ginen», azaldu du Inigo Irazabal Trikikupelako arduradunetarikoa batek. Antolakuntzan aritzea eta aurretik ere sektoreko enpresetan ibili izatea lagungarri izan zaie beraien negozioari ekiteko orduan. «Horrelako ekimenetan gabeziak zirela ikusten genuen, eta horri erantzuteko egiten dugu lan».

HERRI KULTURAN SAKONTZEN

Herri ekimenetan jaio zen Trikikupela, eta egun ere horietan aritzen dira gehienbat. «Herri kulturaren sakontzeko aukera egokiena iruditut zitzaien sagardotegi mugikorra». Bizkaian lan egiten dute gehienbat, zerbitzua Euskal Herri osora eta inguruko lurraldeetara ere eskaintzen den arren. «Errioxan,

adibidez, eskaera handia dugu, zerbitzu ezberdina eskaintzen dugulako; Bizkaian, ostera, hangoak izanda prezio lehiakorragoak eskaini ditzakegu». Gipuzkoan ere lan egiten arren, bertako ohiturak bestelakoak direla onartu du Irazabalek, eta Nafarroan ere egiten dute lan.

Beste edozein negoziok egingo lukeen bezala, beharretara egokitzen ere hasi ziren; izan ere, sagardotegi mugikorra baino zer-

Trikikupelako lagunek Bizkaian lan egiten dute gehienbat, baina noranahi eramaten dute zerbitzua.

TRIKIKUPELAKO UZTETAKO ARGAZKIA

bitzu eskaintza zabalagoa du Trikikupelak. «Pare bat euskal ezkontzarekin hasi zen guztia, bikoteren batek horrela eskatuta. Zentzu horretan, teknologia berrien laguntza handia izan dute. «Hasieratik web orria jarri genuen martxan».

Gure mugetatik haragoko esperientzia ere izan dute bilbotarrek. Orain urte batzuk Mallorcara egin zuten bidaiak, bertako herrimina goxatzeko.

«Euskal Etxea dago bertan, eta Euskal Eguna ospatzen dute; guri deitu ziguten, eta oso esperientzia polita izan zen».

ERREKETAK, GANTXOA

Egun, lau zerbitzu nabarmen izan dira Trikikupelaren eskaintza: Sagardotegi menua, menu bereziak, dastaketak eta «putxeradak» direlakoak. Euskal ezkontzak menu berezi horietan sartuko lirateke. «Eskaintza gastronomikoa arekin batera, eskaintza kulturala uzartzen dugu, bertako ohiko elementu kulturekin».

Aukera honen bidez, posible da adibidez, dantzariak kontratzea. Dastaketak, berriz, luntx formatuak pentsatuta daude. «Edozein gertakari ospatzeko aproposak dira, hainbat udalekin egin dugu lan, adibidez». Bertan, odolostea, txorizoa edota txitxi-burruntziak nabarmen izan dira. Azkenik, «putxeradekin», etxeko sukaldeak bezeroak nahi duen tokira eramaten dute. Marmitakoa eta babarrunak nabarmendu ditu atal honetan bilbotarrek.

Guztia gaitetik baina, ares-tian aipaturiko hiru zutabeak nabarmen izan dira. «Erreketak dira gure gantxoa, modu horretara, denetarik eskaintzen dugu». Sukaldean aritzeko modu horrek, produktuaren zaporea nabarmen izan du, hori dela eta, lehengai freskoak erabiltzen dituzte Trikikupelako lagunak. «Erabiltzen ditugun produktuak freskoak dira, bezperan erositakoak».

Aurrera begira, aldaketa bat du esku artean lantalde bilbotarrek. Hain zuzen ere, 2015eko udarako garagardotegi mugikor zerbitzua eskaintzeko lanean dabilzta asteotan. «Menua aldatuko dugu, oilaskoak sartuko ditugu, adibidez». Horrela bada, sagardotegira sagardo denboraldian hurbiltzerik ez duenarentzat alternatiba bikaina eskaintzen du Trikikupelak.

SAGARDOTEGI MUGIKORRA, TXOKO GUZTIETARA IRISTEKO



GURUTZETA SAGARDOTEGIA, BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATUREALEAN

Egunero irekita, eguerdia eta gauetz. Igandetan ezik.

* 20€ menua astelehen, astearte eta ostegun gauetan.

* Asteazkenetan otxotea kantuz.

* Enkarguz eskatu daiteke: Bakailoa saltsan



Gurutzeta Sagardotegian.
Oialume Bidea, Astigarraga, Gipuzkoa. Tel./Faxa: 943 55 22 42
e-mail: gurutzeta@gurutzeta.com - www.gurutzeta.com

